

Zuloaga Etxearen berrikuntza aurten abiarazi nahi du Hondarribiak

Lanak egiteko 1,9 milioiak udaberriko kreditu aldaketarekin bideratuko dira. Kultura, Kirola, Merkataritza eta Turismo arloek %3 eta %6 bitarteko murrizketak dituzte aurtengo aurrekontuan

HONDARRIBIA. Gaur egun Zuloaga Etxean dagoen udal liburutegiaren eta artxiboaren instalazioak berritzeko eta ondoko eraikinera, Kale Nagusiko 10.era, zabaltzeko proiektua aurten abiatu nahi du Hondarribiko Udalak. 'Horretarako lan egitea da gure helburu nagusietako bat, baina aurretik, udaberriko aurrekontuen kreditu aldaketarekin 1,9 milioiko diru kopurua bideratu behar dugu. Eta, ondoren, obra egiteko lehiaketa martxan jartzeaz gain, lanek iraungo luketen bitartean liburutegia eta artxiboa non kokatu erabaki behar dugu eta dena hara eraman', azaldu zuen atzo Txomin Sagarzazu Kultura eta Kirol arloko zinegotziak.

Eraikina, erosita

Udalak duela urte pare bat erosi zion partikular bati Kale Nagusiko 10.ean berea ez zuen solairua eta, orduetik, liburutegia haunditu, berritu eta zabaltzearen proiektua lantzen eta prestatzen aritu da.

'Gure asmoa, beraz, aurrekontua prest daukagunean, obrak urte honen amaieran edo hurrengoaren hasieran hasteko beste pausoak ematea da', esan zuen atzo Sagarzazuk Kultura, Kirola, Merkataritza eta Turismo arloetako aurrekontuen aurkezpenean.

Murrizketak

Kultura eta Kiroletako arloen aurrekontuei dagokienez, kopuruak 1,42 milioi eta 600.000 eurokoak dira hurrenez hurren eta, 'batez beste, %3 eta %5 bitarteko murrizketak daude atal desberdinetan', azaldu zuen Sagarzazuk. Ekintzak antolatu eta elkarte eta klubak babestu eta laguntzeaz gain, 'aurtengo helburu nagusienak, Itsas Etxeko auditorioa eta Denda kaleko kultur etxea' haien lanean txertatu eta 'dinamizatzea' izango dira, Kultura arloan. Kirolean, berriz, Soroetako guneko berria egin nahi dute.

Merkataritza eta Turismo arloan %6 inguruko beherakada izango du aurten aurrekontuak (330.000 euro), 'baina lan sendoa egitea espero dugu', esan zuen Sagarzazuk.